

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Kultur etxearen funtzionamendua eta hari lotutako jarduerak arautzen dituen ordenantza behin betiko onartzea eta ludotekaren ordenantza behin betiko indargabetzea

Udalbatzak, 2025eko martxoaren 18an egindako ohiko osoko bilkuran, kultur etxearen funtzionamendua eta hari lotutako jarduerak arautzen dituen ordenantzaren hasierako onespenerari eta ludotekaren ordenantza indargabetzeari buruz hartutako erabakia jendaurrean jartzeko epea igaro eta hura 2025eko martxoaren 28ko ALHAOn, 36 zenbakian, argitaratu ondoren, eta epe horren barruan ez denez erreklamaziorik aurkeztu, erabakia, ordura arte behin-behinekoa, behin betiko bihurtzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Oinarrien testua argitaratzen da, eta ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera izango ditu ondorioak. Testuak honela dio hitzez hitz:

ORDENANTZA, KULTUR ETXEAREN FUNTZIONAMENDUA ETA HARI LOTUTAKO JARDUERAK ARAUTZEN DITUENA

ZIOEN AZALPENA

Kanpezuko kultur etxea Kanpezuko kultur jarduera garatzeko titulartasun publikoko eraikina da. Kanpezuko herritarrek parte hartzeko bidea eta erreferentzia puntu soziokulturala izatea du xede. Haren helburu nagusia kultura eta prestakuntza irisgarriago bihurtzea, elkartegintza sustatzea eta herritarren partaidetza bultzatzea da.

1. artikulua

1. Kultur etxea udal titulartasuneko ekipamendu publikoa da, eta kultura, prestakuntza, gizarte eta komunitate arloko hainbat zerbitzu, programa eta jarduera garatzen dira bertan. Nabarmen-tzekoak dira liburutegi zerbitzua eta ludoteka, baita Kanpezuko erretiratuen egoitza soziala ere.

2. Era berean, herritarrei aukera ematen die topaketarako, informaziorako, prestakuntzarako, orientaziorako eta aisialdirako leku irekiak izateko, banakako zein kolektibo diziplina anitzeko erabilera emanez kultura eta kirol arloko zerbitzu, programa eta jarduerai, eta elkarleen, taldeen eta erabiltzaileen parte hartze aktiboa eskainiz.

3. Hauek dira kultur etxearen helburuak:

a) Kanpezuko biztanleentzako partaidetza bidea eta erreferentzia puntu soziokulturala izatea, kultura eskuragarriagoa egiteko, elkartegintza sustatzeko eta herritarren partaidetza bultzatzeko asmoz.

b) Antolaketa unitate bakarrean informazio, prestakuntza, kultura, gizarte, kirol eta aisia zerbitzuak, programak eta jarduerak, bai Kultura Arlotik bai elkarlanean aritzen diren beste toki elkarte batzuetatik garatzen direnak, integratzea, bultzatzeko eta herritarren eskaera eta beharretara ego-kitzeko helburuarekin.

c) Kultur etxeko zerbitzuak sustatu eta kudeatzea, herritarrengana hurbiltzeko eta, horrela, komunitatearen beharrez, asmoz eta aukerez gehiago jakiteko eta horiek hobeto hautemateko. Horrela, horiei erantzuteko jarduketa azkarragoak egin ahal izango dira.

d) Kultura, gizarte, komunitate eta kirol programak eta zerbitzuak bultzatzea, herritarren itxaropenekin bat datozen programak eta jarduerak, erabiltzen dituztenen gogobetetasunaren bila, dauden baliabide guztiak arrazionalizatuz eta koordinatuz.

e) Elkarteen, taldeen eta pertsonen artean parte hartzeko prozesuak bultzatzea, eskariak jaso ahal izateko eta horien ekimenak hartzeko, baita pertsonak eta kolektiboak Kanpezuko gizarte, kultura eta kirol prozesuetan sartzeko ere.

f) Beste udal programa eta zerbitzu batzuetatik sortutako ekimenak barne hartzeko tresna izatea.

ATARIKO TITULUA ARAUDIAREN XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA

2. artikulua. Ordenantzaren xedea

1. Ordenantza honen xedea da Kanpezu kultur etxearen funtzionamendua eta haren erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak arautzea, bai eta bertako instalazioak eta gainerako zerbitzuak nola erabili behar dituzten ezartzea ere.

2. Ordenantza hau jendearen eskura egongo da kultur etxean eta udalaren web orrian.

3. artikulua. Ordenantzaren xedea

1. Ordenantza honen xedea da Kanpezu kultur etxearen funtzionamendua eta haren erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak arautzea, bai eta bertako instalazioak eta gainerako zerbitzuak nola erabili behar dituzten ezartzea ere.

2. Ordenantza hau jendearen eskura egongo da kultur etxean eta udalaren web orrian.

4. artikulua. Printzipioak

1. Kultur etxearen antolaketa espazioen eta zerbitzuen erabilera aniztasunaren, esku hartzeen integrazio eta koordinazioaren eta erabiltzaileen partaidetzaren printzipioei men egiten die.

2. Zentroan ematen diren zerbitzuak eraginkortasunez koordinatu behar dira eta programazio orokorrean sartuta gauzatu behar dira.

5. artikulua. Aplikazio eremua

Ordenantza hau kultur etxetik edo berariaz horretarako xedatutako beste instalazio batzuetan kudeatzen diren instalazio eta zerbitzu guztiei aplikatuko zaie.

LEHENENGOTITULUA ERABILTZAILEAK

6. artikulua. Erabiltzailearen definizioa

1. Ordenantza honen ondorioetarako, erabiltzailea izango da kultur etxera bere instalazio eta zerbitzuen bidezko erabilera egiteko sartzen den pertsona edo kolektibo oro.

2. Ez dira erabiltzaileak izango beren lanari edo lanbideari dagokion jarduera betez instalazioetara sartzen diren pertsonak.

7. artikulua. Erabiltzaileen eskubide orokorrak

Kultur etxearen erabiltzaileek honako eskubide hauek izango dituzte:

a) Kultur etxeko jardueren gaineko egiazko eta behar bezala zehaztutako informazioa jasoko dute.

b) Jardueren arduradun guztiengandik, langileengandik eta kultura ekipamenduetako gainerako partaideengandik tratatu adeitsu eta duina jasoko dute.

c) Izena ematen duten jarduera arrazoizko kalitate estandarrez garatuko da, material egokiez eta aurretiaz jasotako informazioaren arabera.

d) Kultur etxeko langileekin edozein hizkuntza ofizial erabili ahalko dute.

e) Erabilera komun eta orokorreko guneak ezarritako ordutegian erabili ahalko dituzte, salbu eta ezinbesteko kasuengatik edo arrazoi justifikatuengatik erabiltzeko moduan ez badaude.

f) Haien eskariek eta kexek arreta jasoko dute.

g) Zentroan dituzten izaera pertsonaleko datuak ikusi, aldatu eta ezereztu ahalko dituzte, datuak babesteko indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

h) Ordenantza honetan eta gainerako arauetan eta organo eskudunek baliozkotasunez hartutako erabakietan ezarritakoa beteko da.

8. artikulua. Erabiltzaileen eskubideen bermea

1. Kultur etxeko erabiltzaileen eskubideak bermatzeko, ekipamendu bakoitzean erreklamazio eta iradokizun orriak egongo dira eskuragarri.

2. Erabiltzaileak orri horiek erabili ahal izango ditu zerbitzuen funtzionamendu txarra ikusten duenean edo funtzionamendua hobetuko duen zerbait iradoki nahi duenean.

3. Erreklamazioei erantzuteko gehieneko epea 30 egun naturalekoa izango da, dagokion erreklamazioa erregistroan sartzen denetik zenbatzen hasita, ondare erreklamazioa dakarten erreklamazioen kasuan izan ezik, horiek indarrean dagoen administrazio prozedura erkideari buruzko legeriak ezarritakoaren arabera arautuko baitira.

9. artikulua. Erantzukizun zibileko aseguru

Udalak erantzukizun zibileko aseguru bat dauka instalazioaren akatsen ondorioz sor litezkeen istripuak estaltzeko helburuarekin.

10. artikulua. Erabiltzaileen eginbide eta betebeharrak orokorrak

Kultur etxearen erabiltzaileek honako betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Instalazioak, zerbitzuak, altzariak eta ekipamenduak ondo tratatuz eta behar bezala zainduz erabili beharko dituzte. Lokalaren ordena eta garbitasuna errespetatu beharko dituzte.

b) Jarduera edo kolektibo bakoitzari esleitutako bulegoak erabiltze aldera, zentro bakoitzean dagoen administrazio zerbitzura jo beharko dute beti; bera arduratuko da zabaltzeaz eta ixteaz, baita jarduera garatzeko beharrezkoa den materiala emateaz ere.

c) Zentroetako zerbitzu bakoitzeko langileek ematen dituzten jarraibideei jaramon egin beharko diete.

d) Ez diete gainerako erabiltzaileei instalazioen erabilera zilegia eragotzi edo oztopatu beharko.

e) Zentroko ordutegia eta jarduera bakoitzerako ezarritako ordutegiak errespetatu beharko dituzte.

f) Gainerako erabiltzaileak errespetatu behar dituzte eta elkarrekin ongi moldatzeko moduan jokatu behar dute.

g) Instalazioak, materiala eta altzariak behar bezala erabili behar dituzte, ordenantza honetan edo instalazio eta zerbitzu bakoitzaren barne erabileran jasotako baldintzetan, horiei edo gainerako erabiltzaileen osasunari eta eskubideei kalterik ez eragiteko.

h) Instalazioak behar bezala erabili beharko dituzte, beharrezko higiene neurriak betez.

i) Hautematen diren funtzionamendu anomaliak, apurketak, akatsak edo ordenantza honetan ezarritakoaren urraketa guztiak zentroko langileei jakinarazi beharko dizkiete.

j) Zerbitzu bakoitzerako ezarritako prezio publikoak edo tasak puntualki eta zehaztu moduan ordaindu beharko dituzte.

k) Udalak organo eskudunen edo zentroko langileen bidez ematen dituen arau eta jarraibide guztiei men egin eta horiek bete beharko dituzte, edozein kasutan haien lanari mesede eginez eta haien jarraibideei behar bezala erantzunez.

l) Instalazioaren, zerbitzuaren edo jardueraren berariazko txartelaz edo NANaz adierazi beharko dute beren nortasuna instalazioak zaintzen dituzten langileek eskatzen dietenean, baita jardueraren ordainketa frogagiria erakutsi ere, eskatzen dieten guztietan.

ll) Ordenantza honetan jasotako gainerako arauak eta erabiliko dituzten zerbitzuen berezkoak bete beharko dituzte.

BIGARRENTITULUA INSTALAZIOETAN SARTZEKO ARAUDIA

11. artikulua. Jendearentzako sarrera

1. Kultur etxea, printzipioz, sarrera publiko eta askeko instalazioa da, aurretik prezio publikoa edo tasa ordaintzea eskatzen duten jarduerak edo instalazioak izan ezik.

2. Aldez aurretik ordaindu beharreko erabilera eta jarduerari dagozkien prezio publikoak edo tasak ordenantza honen I. eranskinean ezarritakoak izango dira.

12. artikulua. Kultur etxearen ordutegiak

1. Kultur etxeak, bere ezaugarrien eta eskaintzen dituen zerbitzuen arabera, erabiltzeko ordutegia eta jendearentzako ordutegia izango ditu.

2. Erabiltzeko ordutegia udalak jarduerak egiteko zehazten duena izango da, jarduerak publiko orokorrari irekiak izan edo talde jakin batzuei edo ekitaldi bereziei mugatuak izan.

3. Jendearentzat irekita egongo den ordutegia erabiltzeko ordutegiaren barruan egongo da, eta udalak zehazten duena izango da, herritar guztientzako zerbitzuak, programak eta jarduerak eskaintzeko.

4. Instalazioaren itxiera erabiltzeko ordutegiaren arabera izango da, eta gehienez egindako azken jarduera amaitzeko ordutegia baino ordu erdi geroago finkatuko da.

13. artikulua. Zerbitzuei eta jarduerari buruzko informazioa

1. Erabiltzaileek informazio eta kontrol zerbitzu bat izango dute, eta zerbitzu horretatik era guztietako informazioa, erreserbak eta inskripzioak zentralizatuko dira udaletxeko idazkaritzan, lan ordutegian, astelehenetik ostiralera, 8: 00etatik 15:00etara.

2. Informazioa udalaren web orriaren bidez ere eskuratu ahal izango da.

14. artikulua. Adin txikikoen sarrera

Segurtasun arrazoiak direla eta, 8 urtetik beherako haurrak 18 urtetik gorako pertsonak lagun dituztela sartuko dira kultura etxera haien ardurapean, ikastaro edo lantegietara doazenean izan ezik, edo jardueraren arduradunak diren langileak dituzten ikastetxeen, klubaren edo talde antolatuen parte direnean.

15. artikulua. Animaliak sartzea

Oro har ezin da zentzura animaliarik sartu, salbu eta gidari edo segurtasun lanak egiten badituzte.

16. artikulua. Ibilgailu gurpildunekin eta antzekoekin sartzea

Ezingo da zentroan eta gainerako instalazioetan bizikletekin, haurrentzako jostailu gurpildunekin, irristailuekin, gupil oholekin eta antzekoekin sartu.

17. artikulua. Mugikorrek, irrati eta musika-aparatuekin eta antzeko gailuekin sartzeari

1. Debeakututa dago irrati eta musika gailuak eta antzekoak erabiltzea horretarako egokiak ez diren guneetan (korridoreetan, atondoan, patioetan eta abarretan) musika ipintzeko.
2. Mugikorrek itzalita egon beharko dute liburutegietan, ikasketa geletan, jarduerak egiten diren bitartean eta zentroaren funtzionamendu egokia oztokatzen duten gune guztietan.

18. artikulua. Komunikabideak sartzeari

Komunikabideak gizarte eta kultura etxera aurrez baimenik eskatu gabe sartu ahal izango dira zentroetan programatuta dauden ikuskizun publikoen eta jardueren gaineko informazioa emateko; horretarako, ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Zentroaren ohiko funtzionamendua ez oztokatu.
- b) Zentroa irekitzeko edo ixteko ordutegia ez aldatzea.
- c) Grabazio orokorrak direnean, pertsonen intimitateari ez eragitea. Hala ez denean, filmatu edo elkarrizketatuko diren pertsonen berriazko baimena behar izango da.
- d) Pertsonen intimitatea, segurtasuna edo eraikinaren segurtasuna larri kalte dezakeen gertaerarik jazo ez izatea (ezbeharrak).
- e) Gainerako kasuetan komunikabideek baimena beharko dute alde aurretik.

**HIRUGARREN TITULUA
INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ARAUDIA****19. artikulua. Instalazioen ohiko eta ezohiko erabilerak**

1. Kultur etxea ohiko moduan erabili ahal izango da, instalazio horren xede nagusiaren arabera, edo xede horrekin zerikusirik ez duen ezohiko erabilera ere egin ahal izango da.
2. Instalazio bati ezohiko erabilera ematen zaionean, ordenantza honetako bidezko arauak ez ezik gauzatuko den jardura zehatzari dagokion berriazko araudia ere aplikatuko da.

20. artikulua. Gizalegezko portaera

Ezin da jolastu horretarako ez diren eremuetan, ezin da barandetan irristatu, ezingo da oihukatu, korridoreetan korrika egin, abestu eta zentroko funtzionamendu egokia hausten duen bestelako jarduerarik egin.

21. artikulua. Tabakoa, janaria eta edariak kontsumitzeari eta haien ontziei buruzko arauak

Debeakututa dago kultur etxearen barruan alkoholduen edariak hartzea, erretzea edo legez kontrako substantzia oro hartzea.

22. artikulua. Zentroko materialen erabilera

1. Zentroan egiten diren jardura guztiek material egokiak eduki beharko dituzte, eta berriratzeko erabilera arauen arabera erabili beharko dira.
2. Material horien erabilerak edo jarduerak berak ezingo dute aldatu zentroko ondasun higigarri edo higiezinak jardura egitean zeuden egoera.
3. Espazio bakoitzean erabilera orokorreko materiala egonez gero, material hori erabiltzaileen esku utziko da, eta horien ardura izango da materiala ondo erabiltzea, leku batetik bestera eramatea, jasotzea eta gordetzen den dagokion tokira itzultzea.
4. Zentroan eskuragarri ez dagoen material osagarriren bat erabiltzea beharrezkoa denean, hango arduradunaren baimena beharko dute erabiltzeko, eta erabiltzailea izango da erabilera horrek sorraraz ditzakeen ondorioen erantzulea.

23. artikulua. Argazki kamerak, bideoak edo irudiak zein soinuak hartzeko beste edozein tresna erabiltzea

1. Erabiltzaileen intimitatea gorde eta errespetatzeko helburuarekin, guztiz debekatuta dago argazki edo bideo kamerak erabiltzea, telefono mugikorrek edo funtzio hori daukaten beste gailu batzuk barne, pertsonen intimitatea inbaditu ahal diren toki guztietan.

2. Guztiz debekatuta dago komunetan, aldageletan eta antzeko tokietan irudiak hartzea.

3. Kultur etxetik antolatzen diren jarduera eta programa espezifikoetan, horretarako idatzizko baimena eskatuko zaie jardueran edo programan parte hartzen duten guztiei.

24. artikulua. Kultura ekipamendukoa ez den publizitatea ipintzea edo erakustea

1. Kultur etxekoa eta Kanpezuko Udalekoa ez den publizitatea ipintzeko aukera erabilgarri dagoen espazioaren menpe egongo da, eta beste erakunde publiko batzuetatik ez datorrenak alkatetzaren baimena eduki beharko du, debekatutako kasuak kontrolatze aldera (ondoren zerrendatuko dira).

2. Debekatua dago publizitatea jartzea kasu hauetan:

a) Publizitateak edari alkoholodunak, tabakoa, mezu xenofoboak edo legez kanpoko substantziak kontsumitzera bultzatzen dutenak kontsumitzera bultza ditzakeenean.

b) Erakutsitako mezuek edo irudiek pertsonen duintasunaren aurka egiten dutenean edo funtsezko balioak eta eskubideak urratzen dituztenean, bereziki haurren babesari eta hizkuntzaren edo irudiaren erabilera sexistari dagokienez.

c) Irabazi asmoa duen publizitate komertziala denean.

d) Publizitate euskarrian iragarkia egiten duen erakundearen datuak argi jasotzen ez direnean edo iragarritako mezuak edo edukiak ez dutenean argi azaltzen iragarkiaren helburua.

25. artikulua. Kalteak

1. Erabiltzailearen batek instalazioetan nahita edo utzikieriaz kalterik eraginez gero, konpontzeko eskatuko du Kanpezuko Udalak, bere eskura dituen legeko tresnen bidez.

2. Hondamena kultur etxeaz eta horko programazioaz bestelako edozein pertsonak edo erakundeak antolatutako ekitaldi edo jarduera batean sortu denean, kalte horien erreklamazioa antolatzaileengana hedatuko da, antolatutako jardueraren edo ekitaldiaren arduradunak baitira.

3. Kalteen erreklamazio horien izapideak ez du eraginik izango arautegi honetan nahiz aplikagarri diren gainerakoetan jasotzen diren arauak ez betetzeak berekin ekar ditzakeen administrazio zigorrei dagozkienetan.

**LAUGARRENTITULUA
ZERBITZUAK****I. Kapituluua. Liburutegia****26. artikulua. Liburutegia**

1. Liburutegia laguntza eta aholkularitza tresna gisa sortu da, Kanpezu udalerriko edozein adinetako biztanleen prestakuntza, aisia eta kultura beharrei erantzuteko, funtsen hedapenaren eta kultura zabalkuntzaren bidez.

2. Hauek dira liburutegiaren helburuak:

a) Herritarren artean irakurketa ohiturak zabaltzea eta sustatzea.

b) Informazioa eta kultura eskuragarri jartzea.

c) Biztanleek beren bibliografia funtsak erabil ditzaten sustatzea, haiek bere instalazioetan kontsultatuz, mailegatuz eta zainduz.

d) Herritarren informazio, kultura, aisia eta hezkuntza behar berrietara egokitutako zerbitzu osagarriak sortu eta indartzea.

3. Liburutegiaren ordutegia hau izango da: 16:30etik 20:00etara.

27. artikulua. Liburutegira eta mailegu sistemara sartzea

1. Liburutegira eta mailegu sistemara sartzea doakoa da. Liburutegiaren erabiltzaile izaera bertaratze hutsarekin lortzen da, eta horretarako ez da beharrezkoa baldintza berezirik betetzea.

2. Mailegu zerbitzua erabiltzeko, ezinbestekoa da kide txartela edukitzea. Kanpezuko liburutegia Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen (EIPS) barruan dago, eta EIPSren mailegu politika aplikatuko da.

3. Kide izaera kide txartela eskatuz eskuratzen da eta liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzu guztietarako eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean dauden liburutegi guztien mailegu zerbitzuetarako sarbidea ematen du.

4. Txartela doakoa da eta lortzeko ez da baldintza berezirik bete behar, horretarako dagoen inprimakia bete ezik. 16 urtetik beherakoek gurasoen edo tutoreen bitartez eskatu beharko dute kide txartela.

5. 8 urte baino gutxiagoko pertsonak heldu batek lagunduta joan beharko dute zerbitzura; helduak hor dagoen bitartean lagunduko dio. Liburutegiko langileek ez dute adingaberik zaintzeko ardura hartuko.

28. artikulua. Liburutegi zerbitzuak

1. Oinarrizko liburutegi zerbitzuak dira erabiltzeko kide izatea beharrezkoa ez dutenak. Honako hauek dira:

- a) Irakurketa eta ikasketa gela erabiltzea.
- b) Aretoko funts bibliografikoa kontsultatzea.
- c) Eskura dauden prentsa eta aldizkariak irakurtzea.
- d) Wifi sarera konektatzea nork bere gailuarekin.

2. Liburutegi zerbitzu bereziak dira erabiltzeko kide izatea ezinbesteko baldintza dutenak. Honako hauek dira:

- a) Liburuen, aldizkarien eta ikus-entzunezkoen mailegua.
- b) Mediateka.

29. artikulua. Irakurketa eta ikasketa gela erabiltzea

Ez da baimentzen plazak inolako prozeduraren bidez erreserbatzea.

30. artikulua. Mailegu zerbitzua

1. Kideei funts bibliografikoa edo dokumentuak liburutegitik eramateko ematen zaien aukerara datza. Horretarako, kide txartela edo beste identifikazio agiri bat (NAN, NIK eta abar) aurkeztu beharko da.

2. Honako hauek ez dira mailegatuko:

- a) Erreferentzia obrak: hiztegiak, atlasak, entziklopediak eta abar.
- b) Indarrean dagoen hileko aldizkariak; aurreko hiletako ale guztiak mailegagarriak izango dira.
- c) Katalogoan "mailegaezintzat" hartzen diren obrak.

3. Txartela eman duen liburutegiko 6 dokumentu utziko dira gehienez: 3 liburu eta 3 ikus-entzunezko.

Gainera, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko gainerako liburutegietatik 10 dokumentu gehiago har daitezke maileguan.

4. Liburuak 21 eguneko eperako mailegatzen dira, luza daitezkeenak, betiere beste pertsona batek erreserbatu ez baditu.

Gainerako dokumentuak 7 eguneko eperako mailegatzen dira, luza daitezkeenak, betiere beste pertsona batek erreserbatu ez baditu.

5. Udako oporraldian handitu egingo da maileguan eraman daitezkeen dokumentuen kopurua. Maileguaren epea maileguaren aplikazioan itxiko da sukurtsala itxita dagoenean.

6. Edozein dokumentu itzultzen atzeratuz gero, egun batez zigortuta egongo da atzerapen egun eta dokumentu bakoitzeko.

Zigorra Euskadiko Irakurketa Publikoko Sare guztian izango da balioduna.

7. Liburutegian eskuragarri dauden dokumentuak mailegatzeko 2 eskaera egin daitezke gehienez.

8. Liburutegiaren katalogokoak ez diren baina Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko beste edozeinetakoak diren dokumentuak liburutegien artean mailegatzeko 2 eskaera egin daitezke.

Liburutegien arteko mailegu eskaerak liburutegiko jendearentzako arreta mahaian baino ez dira izapidetuko.

Dokumentua liburutegian jaso ondoren, eskatzaileari jakinaraziko zaio, eta hark 7 egun izango ditu dokumentua jasotzeko.

9. Maileguan dauden 2 dokumenturen erreserbak eska daitezke, bai liburutegiko jendearentzako harrera mahaitik, bai OPACetik (Online Public Access Catalogue).

Erreserbatutako dokumentuak eskuragarri daudenean, eskatzaileari jakinaraziko zaio, eta hark 2 egun izango ditu horiek jasotzeko. Epe horretan dokumentuak jasotzen ez badira, erreserbak ez du aktibo jarraituko.

Pertsona batek aldeztu aurretik berak erreserbatutako edo liburutegien arteko mailegu bidez eskatutako dokumentu batean interesik ez badu, liburutegiko langileei jakinarazi beharko die.

10. Mailegatutako dokumentuen erantzukizuna kidearena baino ez da. Galdu edo hondatutako dokumentu oro bazkide horrek ordeztu beharko du.

Galdutako edo hondatutako dokumentua ez ordeztearaz besterik beste dokumentu batzuk maileguan eramateko debekuarekin zehatuko da, eta, gainera, kalte-galeren erantzukizuna eskatzeko dagokion prozedura eragingo du.

31. artikulua. Mediateka zerbitzua

1. Zerbitzu horri esker, bazkideak bere ordenagailuak edo gailu eramangarriak edo liburutegiko ordenagailuak erabil ditzake Internetera konektatzeko.

2. Liburutegiko ordenagailuak erabiltzeko gehieneko denbora ordubetekoa izango da pertsonako eta eguneko. Denbora hori mugarik gabe luzatu ahal izango da, baldin eta ordenagailu bat erabiltzeko zain inor ez badago, denak erabiltzen ari direlako.

32. artikulua. Irakurketa sustatzea

1. Liburutegiak irakurketa sustatzeko antolatutako jardueretan parte hartzea librea da.

2. Liburutegiak aldeztu aurretik emango du proposatutako jardueren berri, eta argi eta garbi adieraziko du zein jenderentzat diren, zenbat leku izango duten eta beste edozein berezitasun.

3. Zerbitzu honetan ipuin kontalariak, ikuskizunak, erakusketak, solasaldiak, tailerrak, irakurketa gidak, egileekin topaketak, irakurketa klubak eta abar sartzen dira. Horien helburu nagusiak dira etorkizuneko irakurleak erakartzea, berriak interesatzea, ohikoei ezagutzak zabaltzen laguntzea, horietan irakurketa kritikoa sustatzea eta liburutegiko baliabideak zabaltzea.

4. Kultur etxearen programazioa Kanpezuko Udaleko kultura arloak egingo du, kultura zinegotzigoaren jarraibideei jarraituz. Askotariko jardueren programa egingo da, kultura zinegotzigoak baisten dituen eskari edo interesen arabera, eta biztanle guztientzat zabalik egon beharko du, inolako bereizkeriarik gabe. Ikasturte bakoitzerako, askotariko jarduerak barne hartzen dituen programa bat onetsiko da. Bertan, argi eta labur islatu beharko dira eskaintzen diren jarduerak, horien iraupena, publiko objektiboa, izena emateko datak eta prozedura, lehentasun ordena, kostua, lantegi bakoitzeko gutxieneko eta gehieneko ikasle kopurua eta berariazko funtzionamendu arauak. Berariazko araudiak jasotzen ez dituen alderdiei dagokie-nez, ordenantza honetan xedatutakoari men egingo zaio. Tailerren kostua ordenantza honetan zehaztutakoaren arabera zehaztuko da.

33. artikulua. Funtzionamendu orokorreko arauak

1. Ordenantza honen hirugarren tituluan ezarritakoez gain, funtzionamendurako arau hauek bete beharko dira liburutegia erabiltzeko:

- a) Isiltasun egoera egokia gorde beharko da; beraz, ezingo da zaratarik egin.
- b) Higiene kontuak direla eta, berariaz debekatuta dago liburutegian inolako jakirik edo edaririk sartzea, ura izan ezik; beraz, ezingo da liburutegian jan edo edan.
- c) Guztiz debekatuta dago liburutegiaren barruan erretzea.
- d) Guztiz debekatuta dago altzarien eta ekipamenduen kokalekua aldatzea edo desegokiro erabiltzea.
- e) Pertsona bakoitzak ezin du aulki edo irakurketa postu bat baino gehiago erabili.
- f) Debekatuta dago animaliak sartzea.
- g) Ezin da liburutegira bizikletekin, patinekin, baloiekin eta abarrekin sartu.
- h) Guztiz debekatuta dago zerbitzuen funtzionamendu egokia haustea.
- i) Ezin da kolarik, artazirik, kuterrik edo altzariak hondatu ahal dituen beste elementurik erabili.
- j) Kontsultatutako liburuak horretarako erabiltzen diren orgetan edo edukiontzietan utzi beharko dira. Liburutegiko langileek ipiniko dituzte berriro apalategietan.
- k) Erabiltzaileek beren gailu mugikorren soinu seinaleak aktibo izatea saihestuko dute. Debekatuta dago horiekin irudiak grabatzea eta argazkiak ateratzea, eta ez dira erabiliko liburutegian hitz egiteko.
- l) Liburutegiko langileekiko eta gainerako erabiltzaileekiko errespetuzko jarrera izan behar da.

2. Funtsetan nahita egindako kalteak, hala nola materialez jabetzea, orriak erauzteak, testua azpimarratzea, zehatu egingo dira dokumentu berria erosiz, horiek eragin dituen pertsonaren kontura, eta, gainera, dagokion zehapena ezarriko da.

3. Altzarietan nahita egindako kalteak behar bezala zehatuko dira, eta, horrez gain, egin beharreko konponketaren kostua ordaindu beharko da.

4. Liburutegiko langileek jokabide desegokiren batean tematzen dena edo arau horietakoren bat betetzen ez duena barrutitik kanporatzeko eskubidea izango dute, eta ahoz jakinaraziko diote zenbat denboraz ezingo den liburutegira sartu. Horri buruz, alkatetzari jakinarazi beharko diote, eta berak, hala behar izanez gero, sartzeko debekuaren iraupena aldatu ahal izango du. Horren guztiaren berri eman beharko zaio zehatutako pertsonari.

II. kapituluak. Ludoteka

34. artikulua

Kapitulu honen xedea Kanpezuko udal ludotekaren funtzionamendurako eta erabilerarako arauak ezartzea da. Ludotekak bi helburu dauzka: batetik, bertaratzen direnak astialdian hezte; bestetik, sozializatzen eta modu integralean garatzen laguntzea.

35. artikulua. Zerbitzuaren azalpena

1. Ludoteka udalaren zerbitzua da: jolaserako berariaz prestatutako espazio batean haurrentzako jostailuak, jokoak, liburuak eta beste jolas material batzuk daude, eta programazio sozio-kulturala eta hezkuntzako prestatzen da, helburu nagusitzat hartuta haurrak beraien denbora librean jolastuz garatzea. Ludotekaren jarduna eskualdeko baliabideekin koordinatzen da eta jardueretan begiraleak aritzen dira.

2. Ludoteka haurrentzako eta nerabeentzako jolaserako gunea eta hezkuntza zerbitzua da. Hauexek dira beraren xedeak: haurren eta gaztetxoek parte hartzea sustatzea; aisia eta astialdiko aukerak eskaintzea; jolasaren eta zenbait lantegi eta jardueraren bidez haurren eta nerabeen garapen osoa bultzatuko duten baloreak, jarrerak eta jokabideak sustatzea; helburu horietan heldu arduratsuek parte hartzea.

3. Horrez gainera eskolatik kanpo euskaraz bizitzeko eta euskara sustatzeko lekua ere bada.

4. 0-12 urte bitartekoek astialdiko hezkuntza beharrianak asetzeko zerbitzu hau doakoa da.

5. Ludotekan 52 pertsona egon daitezke gehienez.

36. artikulua. Helburuak

1. Hauek dira ludotekaren helburuak:

a) Jolas ingurune batean, haurren eta gazteen garapen kognitiboa, psikomotorra, afektiboa, soziala eta hizkuntzako sustatzea ahalik eta modurik osasuntsuenean.

b) Hurrei eta gazteei laguntzea irudimena eta sormena lantzen jolasaren bidez.

c) Jolasa ez ezik, batez ere komunikazioa, talde lana eta elkarrekiko begirunea ere bultzatzea.

d) Elkarbizitzaren alde egitea elkarrekiko errespetua nagusi den giroan.

2. Hauek dira ludotekak bete beharreko helburu orokorrak:

a) Nortasunaren garapen osoa jolasaren eta hezkuntzaren bidez.

b) Hurrei eta gazteei beren kideekin sozializatzen eta harremanak ezartzen laguntzea, jolasa oinarritzko faktorea dela.

37. artikulua. Erabiltzaileak eta adina

1. Ludoteka 0-8 urte bitarteko haurrentzat eta 9-12 urte bitarteko gazteentzat da; 8 urtetik beherako umeak pertsona arduradun batekin joan behar dira.

2. Sartzea librea da eta ordenantza honen ondorioetarako erabiltzailea izango da aurreko puntuan ezarritakoa betez zerbitzua erabiltzen duen oro.

38. artikulua. Eskaintzen dituen zerbitzuak

Ludotekan honako zerbitzuak egongo dira:

a) Eskueran diren jostailuak: zerbitzu honi esker nor bere nortasunaren arabera eta bere erara jolastu daiteke; hori dela eta, hainbat gune prestatuko dira.

b) Jokoak: begiraleari eskatu behar zaizkio.

c) Animazio sozio-kulturaleko jarduerak: astialdiko hezkuntza jarduerak, giza balore jakin batzuk sustatzeko helburu daukatenak: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, kultura desberdinen elkarbizitza, ingurumena zaintzea eta errespetatzea, eta elkarbizitza.

d) Tailerretan parte hartzea: doakoak izango dira denak eta gaiak programazioan finkatuko dira.

e) Instalazioetan Internetarako wifi konexioa dago, doan.

39. artikulua. Jarduerak

Jarduera guztiak hilekoak izango dira; ordutegiak blokearen arabera aldatu ahal izango da, erabiltzaile guztiek eduki dezaten aukera ikastaro, solasaldi eta jardueretan izateko.

Ludoteka programan sartzen diren jarduerak honako hauek izango dira: jolasak, tailerrak, proiektzioak, solasaldiak, ipuin kontaketak eta abar.

40. artikulua. Ludotekaz arduratzen diren langileak eta haien eginkizunak

1. Kanpezuko Udalak zuzenean emango du ludoteka zerbitzua, bere langileen bidez edo zeharka, dagokion zerbitzu kontratuaren lizitazioaren bidez.

2. Bere eginkizunak betetzean, zerbitzua emateaz arduratzen den pertsonak honako helburu hauek landu beharko ditu:

a) Pertsonen arteko komunikazioa erraztea.

b) Parte hartzea eta asoziazionismoa sustatzea.

c) Sormena bultzatzea.

d) Gizarteratzea, elkartasuna, askotarikotasunarekiko errespetua eta berdintasuna sustatzea.

e) Hezkuntza behar bereziak hautematea.

f) Naturari eta ingurumenari errespetua izatea sustatzea.

g) Arau hauek bete daitezen zaintzea (betetzen ez badira, neurri egokiak ezarri ahal izango dira betetzeko).

3. Era berean, zerbitzuaren arduradunak bermatu beharko ditu zuzendaritza eta koordinazio eginkizunak jarduerak, asteko plangintza, jendearentzako arreta eta udal administrazioarekiko harremanak, honako hauek nabarmenduta:

a) Antolamendua:

a.1) Erabiltzaile berriak hartzea: harrera egitea, ludotekaren berri eta zerbitzuaren inguruko informazioa ematea, eta orientazioa eskaintzea.

a.2) Materialen inbentarioak egitea, sailkatzea eta katalogatzea.

a.3) Jarduerak eta programak diseinatzea, gauzatzea eta jarraipena egitea haien plangintzatik ebaluazioraino.

b) Hezkuntza:

b.1) Pertsonen arteko komunikazioa erraztea.

b.2) Parte hartzea bultzatzea.

b.3) Sormena bultzatzea taldearen barruan.

b.4) Hezkuntza behar bereziak hautematea.

b.5) Josteta animatzea eta giro atsegina eta lasaia sortzea.

c) Animazioa:

c.1) Animazio soziokulturaleko jarduerak diseinatzea eta burutzea.

c.2) Taldeko jolas programak eta jarduerak sortzea, antolatzea eta egitea.

c.3) Proiektuak gauzatzea, lana programatzea eta emaitzak ebaluatzea jarduna berritzeko.

c.4) Taldekideak adoretzea beren kabuz dinamizatzeko.

41. artikulua. Funtzionamendu arauak

1. Ordenantza honen III tituluan oro har aurreikusitakoez gain, funtzionamendurako arau hauek bete beharko dira ludoteka zerbitzua erabiltzeko:

a) Erretzea debekatuta dago.

b) Ludotekako materiala ezin da kanpora atera.

c) Jolaserako material bakoitza bere tokian gorde behar da joko amaitutakoan; hori egitea ezinbestekoa da beste joko bat eskatzeko.

d) Erabiltzaileek nornahik erabiltzeko moduko materialak biltzen lagundu behar dute, ahal duten heinean, bakoitzak berak erabilitakoak. Umeen gurasoek bildu behar dituzte materialak, bai eta jolaslekuak atondu ere.

e) Ezin da jan piparik, kakahueterik ez bestelako janari oskoldunik.

f) Ludotekako instalazioetan eta korridoreetan ezin da korrika egin.

g) Bizikletak, patineteak, baloiak, haurtxoen orgak, aulkitxoak ludotekako sarreran utziko dira.

h) Gune jakin batean (haurren txokoa) ezin da oinetakoekin sartu; oinetakoak berariaz jarritako armairu batean utzi behar dira.

i) Jolaskideen jolasak eta jarduerak errespetatu behar dira; ezin dira besteen jolasak eragotzi.

j) Zerbitzua erabiltzen dutenek jolas materialak eta altzariak ondo erabiltzeko arduratu behar dute, gaizki erabiliz hondatu ez daitezten. Zerbait gaizki erabilia hondatzen bada, erabiltzaileak haren kostua ordaindu beharko du edo berria erosi.

k) Erabiltzaileek sortzen den zaborra birziklatzen lagundu behar dute; horrela ingurunearekiko errespetua eta ingurunearen zaintza bultzatuko dira.

l) Funtsezko helburu hauek sustatu behar dira: partekatzea eta errespetatzea.

II) Haurren txokorako gunea errespetatu behar da: hura erabiltzeko lehentasuna izango dute 0-7 urteko hurrek.

m) Ludoteka eta liburutegia gune berean daude; beraz, guneak errespetatu behar dira, bakoitza bere xederako erabili behar da eta liburutegian isilik egon behar da.

n) Instalazioetan botikina dago.

2. Kanpezuko Udalak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik erabiltzaileek jasan ditzaketen objektuen lapurreta edo galerengatik ez erabiltzaileen ezbeharrengatik, ezbeharra instalazioen akats bategatik gertatzen denean izan ezik.

42. artikulua. Egutegia eta ordutegia

Ludoteka zerbitzuaren jardunean bi ziklo egongo dira urtean; egutegia udalak ezarriko du eta jarduerak hasi baino lehen jakinaraziko da.

43. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak

1. Ludotekaren erabiltzaileek, ordenantza honen 7. artikuluan orokorrean ezarritakoez gain, honako eskubide hauek izango dituzte:

- a) Udal ludoteka erabiltzea, hain zuzen ere bertako ondasunak eta zerbitzuak.
- b) Programatutako tailerrei eta jarduerari buruzko informazioa eskatzea.
- c) Ludotekan egiten diren jardueretan parte hartzea eta instalazioak eta materialak berdintasun araubidean erabiltzea.
- d) Usteak, proposamenak eta kexak aurkeztea eta erreklamazioak edota iradokizunak egitea, bai zerbitzua kudeatzen duten langileei, bai udalari.

2. Era berean, ludotekaren erabiltzaileek, 10. artikuluan ezarritakoez gain, honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Ludotekako ondasunak eta zerbitzuak behar bezala erabiltzea, bai instalazioak, bai materialak.
- b) Guneak errespetatzea (haurren txokoa eta liburutegia).
- c) Ludoteka erabiltzeko arautegia betetzea.
- d) Zentrora sartzeko eta handik irteteko, ezarritako ordutegia errespetatzea.
- e) Erabiltzaileek ezin dute sartu ludotekan kanpotik ekarritako bizikletarik, patineterik ez baloirik.
- f) Gainerako erabiltzaileak eta zerbitzuaren ardura duten langileak errespetatzea.
- g) Zerbitzuko arduradunek instalazioen eta materialen erabilerari eta programatutako jardueren garapenari buruz ematen dituzten jarraibideei eta aginduei jaramon egitea.

44. artikulua. Osasun alderdiak

1. Gaixotasun baten zantzurik (sukarra, beherakoa, konjuntibitisa, pedikulisia –zorriak–) edo infekzio-kutsakorren bat edukiz gero, hobe umeak eta gazteak ludotekara joaten ez badira.

2. Ludotekaren erabiltzaileen higiene pertsonala zaindu behar da. Jostailuak, jokoak eta liburuak ez zikintzeko, erabili baino lehen eskuak garbitu behar dira / Neguan zapatak astindu behar dira sarrerako oin zatarrean / Aterkiak...

III. kapitulua. Kanpezuko Udalak antolatutako
jarduera soziokulturalak edo kirol jarduerak

45. artikulua. Jarduerak

1. Udalak, beren ezaugarriak direla eta, kultur etxean egin daitezkeen jarduera soziokulturalak edo kirol jarduerak programatu ahal izango ditu.

2. Udalak behar bezala iragarri beharko ditu jarduera horiek, parte hartu nahi duten udalerriko pertsona guztiek jarduera horien berri izan dezaten.

3. Jardueretan parte hartzea, kasu batzuetan, doakoa izango da, eta, beste kasu batzuetan, dagokion tasa ordaindu beharko da, eta horren berri emango da jarduera bakoitzaren iragarkian.

46. artikulua. Jardueren iragarkia

Jardueraren iragarkian honako hauek jaso beharko dira:

- a) Jardueraren deskribapena.
- b) Jardueraren egutegia eta ordutegiak.
- c) Bertan parte hartzeko betekizunak (adina, bete beharreko baldintzak).

d) Plaza kopuru mugaturik dagoen, eta, kasu horretan, sarbidea ezartzeko sistema (zozketa, eskabidearen hurrenkera).

e) Doako jarduera den edo prezio publikoaren mende dagoen, eta, azken kasu horretan, horren zenbatekoa, ordenantza honen I. eranskinean ezarritako prezio publikoen arabera, eta, halakorik ezean, iragarkian ezarritakoen arabera.

Jardueraren ordainketak hasieran eginda egon beharko du; bestela, ezin izango da jardueran sartu.

47. artikulua. Ezaugarri orokorrak

Titulu honetan aipatutako jardueri aplikagarriak zaizkie instalazioen eta zerbitzuaren erabilera baldintzei buruz lehen, bigarren, hirugarren eta seigarren tituluan jasotako erreferentzia orokorrak.

BOSGARREN TITULUA

GUNEAK ETA MATERIALAK LAGATZEKO ZERBITZUA. ERRESERBA ETA ALOKAIRUA

48. artikulua. Kultur etxeko guneak lagatzea eta ekitaldi soziokulturaletarako udal materiala alokatzea

1. Kanpezu kultur etxeko guneak lagatzeko zerbitzua gune bat eta material teknikoa udalerriko erakundeei, elkartei eta kultura eta kirol taldeei lehentasunez nahiz partikularrei, enpresei eta elkarte profesionali ere lagatzean edo alokatzean datza, beren jarduerak egin ahal izateko. Hala ere, udalerriko irabazteko xederik gabeko elkarteek edo erakundeek antolatutako kultura jarduerak izango dute lehentasuna. Berariaz debekatuta egongo da guneak adingabeei, talde erlijiosoei lagatzea, baita beste edozein elkarte, partikular, enpresa eta elkarte profesionali ere, ekitaldi politikoetarako edo gurtzako ekitaldietarako eskatzen badituzte.

2. Ekitaldi soziokulturaletarako materialak alokatzeko zerbitzua Kanpezuko Udalaren jabetzako materiala alokatzean datza, hala nola agertokia, proiektagailua eta beste material batzuk.

3. Alkatetzak dauka eskatutakoa onartzeko edo ukatzeko eskumena.

49. artikulua. Erreserba daitezkeen guneak

1. Kultur etxeko guneak ordenantza honetan ezarritakoaren arabera erreserbatu edo alokatu ahal izango dira. II. eranskinean zehaztutako kultur etxeko guneak erreserbatu eta alokatu ahal izango dira.

2. Kultur etxean guneak erreserbatzeko edo alokatzeko, alkatetzaren baimena beharko da. Udalak jarduerak egiteko erreserba eskaera onartzeko edo ukatzeko eskubidea gordetzen du, kalitatearen arabera edo udalaren helburuekin edo esku hartze ildoekin bat datozen kontuan hartuta.

3. Honako hauek edukiko dute erabateko lehentasuna guneak erabiltzeko, hurrenkera honetan:

a) Lehenik eta behin, udalak eta izaera instituzionaleko beste eskaera batzuek.

b) Bigarrenik, egoitza udalerrian duten irabazteko xederik gabeko elkarteek; horien artean, soziokulturek eta kirolekoek edukiko dute lehentasuna.

c) Hirugarrenik, egoitza udalerrian daukaten partikularrek, enpresek eta elkarte profesionalak.

d) Laugarrenik, gainerakoek. Nolanahi ere, instalazioak erabiltzeko aukera ematea alkatetzak antolatutako edo baimendutako ekitaldien arabera izango da, eta ez da erreklamazioak aurkezteko aukerarik izango baldin eta halakoen ondorioz baimendutako lagapena bertan behera utzi edo ordutegia aldatu beharra badago. Hala ere, ahal dela 48 ordu lehenago emango da horren berri.

50. artikulua. Erreserbatzeko edo alokatzeko prozedura eta eskaeren tratamendua

1. Gunea erreserbatzeko eskaera idatziz aurkeztu beharko da, gutxienez ekitaldia egin baino 4 egun lehenago, udal bulegoetan edo egoitza elektronikoaren erregistroaren bidez:

- a) Eskatzen den gunea.
- b) Zer ekitalditarako den (egin nahi den jardueraren deskribapen laburra) eta zer behar tekniko dagoen.
- c) Gunea erabiltzeko data eta ordutegia.
- d) Ekitaldiaz arduratzen den pertsona eta harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa.

Eskatzaileek adin nagusikoak izan beharko dute. Eskaerak jasotakoan, kultura zinegotzigoari dagokio guneak erabiltzeko egutegia prestatzea, jasoriko eskaeren eta ezarritako programazioaren arabera. Sail horrek eman beharko du eskatutako espazioaren eskuragarritasunaren berri.

Alkatetza izango da eskatutako gunearen erabilera baimentzeko organo eskuduna, eskaera jasotzen denetik 2 eta 5 egun arteko epean. Erantzunean, eskatutako zerbitzu guztiengatik ordaindu beharreko zenbatekoa adieraziko da, ordenantza honen I. eranskinean aurreikusitako tasen arabera.

Behin betiko erreserba ez da egingo eskatzaileak ezarritako tarifak ordaindu arte; ordainketa 10 egunetan egin beharko da, erreserbaren onarpena egiaztatzen denean zenbatzen hasita.

Debekatuta dago eskaera-orrian agertzen den erakundea ez den beste batek okupatzea espazioa; halaber, debekatuta dago eskaera fitxan deskribatzen denaz bestelako jarduera bat egitea.

Alkatetzak eskubidea du erakundeari, taldeari edo enpresari buruz zein gunea eskatzeak xede duen jarduerari buruz informazio zehaztua eskatzeko. Errekerimendua betetzen ez bada, jardueraren baimena baliogabetuko da.

Erakunde berari espazio bat lagatzeak, aldizka izan arren, ez du inola ere erakundearen edo taldearen sozietate-egoitza zentroan ezartzeko aukera emango. Halaber, zentroko gunearen erreserba urtero berritu beharko da.

2. Materialaren alokairua baldintza berberen mende egongo da, eta haren eskaerak alokatzeko zioa ezarri beharko du.

51. artikulua. Guneen erreserbak eta materialen alokairuak eskatzeko baldintzak

1. Erabilera baimentzen den unetik aurrera, eskaeran izan daitezkeen aldaketa guztiak idatziz jakinaraziko zaizkio udalari. Era berean, erreserbaren edo alokairuaren onuradunak, edozein arrazoi dela eta, instalazioaren erabilera bertan behera utzi behar badu, ahalik eta lasterren jakinarazi beharko du. Eskatzaileak ekitaldia bertan behera uzteak ez du tasa itzultzeko eskubiderik emango, salbu eta arrazoi justifikatu batengatik bada.

2. Erreserbatutako gunea justifikatu gabe hiru aldiz erabiltzeari utzi bazaio, etorkizuneko eskaerak ukatu ahalko dira.

3. Gunearen erreserba egin edo materiala alokatzen denean eta horrek dirauen denboran talde, elkarte, klub edo erakunde eskatzaileko arduradun bat egon beharko da bertan.

4. Erakunde eskatzaileak ekitaldiaren erantzukizuna eta jarduerak instalazioei, objektuei eta/edo altzariei eragin diezazkieketen kalteen erantzukizuna gain hartuko ditu.

5. Lokalaren erreserba eskatzen duen erakundeak gunearen edukiera baimenduak errespetatzeko konpromisoa hartzen du, eta horiek kontrolatzeko eta betetzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu.

6. Alkatetzak baldintza partikularrak ezarri ahal izango dizkie guneen erreserba edo materialen alokairu jakin batzuei ordenantza honetan ezarritakoa bete dezaten, eta salbuespen gisa baimendu ahal izango du, bere organo eskudunen bitartez, gune jakin batzuk erabiltzea hemen jasotzen ez diren baldintzetan.

52. artikulua. Tarifak, prezio publikoa eta fidantza

1. Kanpezuko kultur etxean erabilgarri dauden guneak eta alokatutako materiala erabiltzeak ordenantza honen I. eranskinean jasotako tarifak ordaintzea dakar. Tarifa horiek Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera ezartzen dira.

2. Udal honek bereak dituen eta erabiltzeko lagatzen dituen udal lokal, instalazio edo ondasunen edo alokatutako udal materialaren erabileratik onura ateratzen duten pertsonak ordaindu beharko dute ordenantza honetan araututako prezio publikoa.

3. Zerbitzuaren tarifen zenbatekoa erreserba baieztatu ondorengo 10 egunetan ordainduko da eta, edonola ere, jarduera egin baino 2 egun lehenago gutxienez. Baldintza hori bete ezean, erreserba ez da egintzat joko.

4. Eskatzen den erreserba denbora gaindituz gero, orduen zatikiak ordu osotzat joko dira.

5. Lokalaren lagapenaren kasuan, jarduera ohiko ordutegitik kanpo egiten bada edo ordutegia luzatu behar bada, eskatzaileek beren gain hartuko dituzte ordutegi luzapenari dagozkion langile gastuak eta, hala badagokio, materialari dagozkionak -luzapen horrek udalari eragiten dizkionak, alegia-. Luzapen hori udalak kuantifikatu eta eskatzaileari jakinaraziko dio.

6. Kultur etxeko ekitaldi aretoa erreserbatzeak eta agertokia alokatzeak, salbuespenik gabe, ehun (100,00) euroko fidantza ordaintzea ekarriko du udalerrian kokatutako eta erregistratutako elkarteentzat, eta berrehun (200,00) eurokoa gainerakoentzat. Fidantza hori itzuli egingo da instalazioak erabili aurretik zeuden egoera berean utzi direla egiaztatu ondoren. Instalazioak egiaztatu eta gehienez 48 ordu balioduneko epean itzuliko da fidantza.

Prezio publikoaren eta fidantzaren ordainketa instalazioak edo materiala erabiltzen diren eguna baino lehen egin beharko da; bestela, eskaera baliogabetzeko arrazoia izango da.

53. artikulua. Guneak erabiltzeko ordutegiak

1. Kultur etxeko guneak lagatzeko ordutegia ekipamenduaren ordutegiaren berdina da, eta eskatzailea ordutegi horri lotu behar zaio. Nolanahi ere, udalak erakunde edo administrazio batekin hitzarmen bat sinatu badu, beste ordutegi bat zehaztu ahal izango da.

2. Eskatzaileak eskaera idazkian jardueraren hasieraren ordu zehatza eta jardueraren amaieraren ordua adierazi beharko ditu, eta ordutegi berean jardueraren iraupena barne hartuko du; beharrezkoa izanez gero, ekitaldia muntatzeko eta desmuntatzeko ordutegia ere jasoko ditu.

54. artikulua. Erreserba bat etetea

1. Alkatetzak, beharrezkoa izanez gero, erreserbak bertan behera utzi ahal izango ditu instalazioa oker erabiltzen denean nahiz egiten diren jarduerak erreserba eragin zutenekin bat ez datozenean. Modu berean jardun ahal izango du alokatutako materiala gaizki erabiltzeari dagokionez.

2. Era berean, alkatetzak bere gain hartzen du instalazioak erabiltzaileei eta jendeari oro har erabat edo partzialki ixteko eskubidea, hainbat zergatiren ondorioz erabiltzean arriskuren bat egon daitekeela erabakiz gero.

3. Alkatetzak kultur etxeetan egindako erreserba bat atzeratu edo bertan behera utz dezake, betiere arrazoitutako eta jendearen interesekoa den kasuengatik, eta, posible izanez gero, jarduera egiteko beste espazio bat emango da Jarduera egin baino 48 ordu lehenago ohartarazteko ahalegina egingo da.

55. artikulua. Irabazi asmorik gabeko erakundeek edo Kanpezuko Udala ez den beste administrazio batzuek erabiltzeko lokalak

1. Alkatetzak erabaki ahal izango du Kanpezuko Udalez bestelako erakunde, elkarte soziokultural edo irabazteko xederik gabeko kirol elkarteentzat edo administrazioentzat erabilera esklusiboko edo partekatuko gunerik dagoen kultur etxean, beren jarduerak gauzatzeko edo, administrazioen kasuan, zerbitzua emateko. Gune horiek denbora mugatu baterako esleituko dira, hitzarmen bidez, arlo horretan indarrean dagoen araudiak ezartzen duen moduan.

2. Aurreko puntuan aipatutako irabazteko xederik gabeko erakunde batek kultur etxea izan dezan egoitza, hala aurreikusten duen hitzarmen bat sinatu beharko du Kanpezuko Udalarekin. Udalak herriari zerbitzu bat ematea helburu duten elkarteekin bakarrik hitzartuko du. Udaleko talde politikoek edo alderdi politikoek ezin izango dute kultur etxea izan egoitza.

**SEIGARREN TITULUA
ZEHAPEN ARAUBIDEA****56. artikulua. Gatazkak ebaztea**

Oro har, ordenantza honetan arautzen ez den gatazka bat sortuz gero, udalak adostasunez konpontzearen alde egingo du, hau da, ahaleginak egingo ditu kontrako jarrerak bateratu eta nahastutako pertsonak asetzen dituen konponbidea aurkitzeko, elkarrekin lanean jarraitu ahal izateko helburu komunak lortzeko bidean.

57. artikulua. Arauak ez betetzea

1. Ordenantza honetan jasotzen diren arauak ez betetzea arau haustetzat joko da, eta, hortaz, zehapena jarri ahal izango da halakoetan. Edozein ez betetze gertatuz gero, egitateak jakinaraziko zaizkio zehatzeko eskumena duen organoari.

2. Instalazio, zerbitzu eta jardueren arduradunak beharrezko jokabidea ez duten pertsonak ohartarazteko eta are kultur etxetik kautelaz, gertakari txostena ebatzi arte, kanporatzeko ahala du.

58. artikulua. Arau hauste arinak

Honako hauek arau hauste arintzat joko dira:

- a) Kultur etxeko jardueren edo zerbitzuen arduradunen jarraibideei jaramon ez egitea.
- b) Instalazioak eta materiala behar den ardurarekin ez erabiltzea.
- c) Zerbitzuan edo jardueretan erabilitako materiala ez biltzea.
- d) Zalaparta sortzea edo jarduerak eteten dituen beste edozein ekintza.

59. artikulua. Arau hauste astunak

Honako hauek arau hauste astuntzat joko dira:

- a) Kultur etxeko gune eta zerbitzuetan bizikidetzat asaldatzea, zerbitzuko arduradunekiko edo gainerako erabiltzaileekiko errespeturik gabe.
- b) Kultura ekipamenduen eta eskaintzen dituen zerbitzuen funtzionamendua nahastea, eta zerbitzu horien berariazko arauak eta ordenantza honetan ezarritako arauak ez betetzea.
- c) Kultur etxeko zerbitzuak eta guneak egoki ez erabiltzea eta baimendutako jardueren bestelakoak egitea.
- d) Ezarrita dagoen prezio publikoa ordaindu gabe sartzea zerbitzuetara.
- e) Kultur etxeko ekipamendu, azpiegitura, instalazio edo elementuetan nahita edo zaborke-riaz kalteak sortzea, hirurehun (300,00) euro baino gutxiagoko balioa badute.
- f) Liburutegi zerbitzuaren txartel espezifikokoak manipulatu eta faltsifikatzea.
- g) Bi arau hauste astun edo gehiago egitea urtebetean.

60. artikulua. Arau hauste oso astunak

Honako hauek arau hauste oso astuntzat joko dira:

- a) Kultur etxearen edo bertan ematen den zerbitzu baten erabilera galaraztea horiek erabiltzeko eskubidea duten beste pertsona batzuei.
- b) Kultur etxeko edozein erabiltzaile edo langileri fisikoki edo ahoz erasotzea.
- c) Eraikinak edo bertako instalazio, ekipamendu, azpiegitura edo elementuak nahita edo zarkeriaz hondatu edo haiei kalteak eragitea, baldin eta 300,00 euro edo gehiago balio badute.
- d) Zerbitzua modu desegokian erabiltzea, delitu egitatea bada.
- e) Nortasuna datu faltsuez edo beste pertsona bati dagozkion datuez adieraztea.
- f) Bi arau hauste astun edo gehiago egitea urtebetean.

61. artikulua. Kautela neurriak

Kultur etxean ematen ari den zerbitzu edo jarduera baten arduradunak kanporatu edo, hala badagokio, kide txartela kautelaz kendu ahal izango die gehienez hamar egunez arau hauste astuna edo oso astuna izan daitezkeen jokabideak dituzten erabiltzaileei.

Kanporatzeak berehalako ondorioak izango ditu, eta Alkatetzari jakinaraziko zaio, gehienez ere egun baliodun bateko epean. Alkatetzak, kanporatutako pertsonen entzun ondoren, erabakiaren nondik norakoak berretsi beharko ditu edo ez, egoeraren larritasuna baloratuta.

62. artikulua. Zehapenak

Arau hauste oso astunei mila eta bostehun (1.500,00) eurotik hiru mila (3.000,00) eurorainoko isuna jarriko zaie. Gainera, erabiltzaile edo kide izateko eskubidea behin betiko kenduko da.

Arau hauste astunei zazpiehun eta berrogeita hamar (750,00) eurotik mila eta bostehun (1.500,00) eurorainoko isuna jarriko zaie. Gainera, erabiltzaile edo kide izateko eskubidea behin-behinean kenduko da, gehienez ere sei hilabete eta urtebete arteko epean.

Arau hauste arinei zazpiehun eta berrogeita hamar (750,00) euroko isuna jarriko zaie. Gainera, erabiltzaile edo kide izateko eskubidea behin-behinean kenduko da, hilabete eta sei hilabete arteko epean.

63. artikulua. Kaltea konpontzea

Zehapenak ezartzeaz gain, arau hausleari berak eraldatutako egoera lehengoratzeko eska dakioko, bai eta sortutako kalte-galerak ordaintzeko ere.

Udalarenak diren ondasunei kalterik eginez gero, udal zerbitzu teknikoek konponketaren zenbatekoa zehaztuko dute, eta arau hausleari edo haren ordezkari erantzun behar duenari jakinaraziko zaio, ezartzen den epean ordain dezan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Gaiari buruzko indarrean dagoen beste edozein xedapen edo udal-araudi indargabetuta geratzen da, maila berekoa zein baxuagokoa izan, ordenantza honetan eta, zehazki, Kanpezuko udal ludoteka arautzen duen ordenantzaren ezarritakoaren aurka egiten badu.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2 artikuluan xedatutakoaren arabera sartuko da indarrean eta udalak aldatzea edo indargabetzea erabaki arte jarraituko du indarrean.

I. ERANSKINA
KULTUR ETXEARI APLIKATU BEHARREKO TARIFAK

1. Kultur etxea erabiltzeagatiko prezio publikoak.

a. Kultur etxea doan erabiliko da irabazteko xederik gabeko jarduera guztietarako.

b. Kultur etxea irabazteko asmoa duten jardueretarako erabiltzen bada:

b.1. Aretoaren erabilera:

— 40,00 euro egunean.

— 20,00 euro egun erdiagatik.

b.2. Ekitaldi aretoaren erabilera:

— 100,00 euro egunean.

— 50,00 euro egun erdiagatik.

Egunaren erreferentzia kultur etxearen erabilera ordutegien barruan ulertu behar da. Egun erdiaren erreferentzia izango da erabilera goizera edo arratsaldera mugatzen denean.

2. Udal materiala alokatzeagatiko prezio publikoak:

— Proiektorea: 20,00 euro eguneko edo jarduerako.

— Agertokia: 50,00 euro eguneko edo jarduerako.

— Beste materialak: 50,00 euro eguneko edo jarduerako.

3. Tasen ordainketak ez dute barne hartzen muntatzeko edo prestatzeko aparteko lanak Gune baten erreserbaren onuradunek, aurrez itundutako adostasuna izan ezean, beren bitarteko teknikoak izan beharko dituzte (langileak eta materiala) jarduerak garatzeko.

4. Salbuespenak eta hobariak.

Prezio publikoa ordaindu beharraren salbuespena deklaratu ahal izango da onura publikoko arrazoiak daudenean. Onura publikoko arrazoiak izango dira udalerrri honetako kultura edo kirol elkarteek eta erroldatutako pertsona fisikoek egiten badute eskaera, edo administrazio publikoren batek egiten badu. Horrelakoetan, egin beharreko jardueraren kartela aurkeztu beharko dute eskaerarekin batera, eta kartelean udalaren logoa agertu beharko da, udala erakunde laguntzailea dela adierazteko.

Udalerrri honetan errotuta dauden kultura edo kirol elkarteentzat eta erroldatutako pertsona fisikoentzat ehuneko 70eko hobaria ezarriko da, erabilera lagapena bost egun jarraitutik gorakoa denean.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Santikurutze Kanpezu, 2025eko maiatzaren 26a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO